

Mihura: gurtzetik akabatzen

**Druida galiarrek jainkoekin
erlazionatzen zuten, eta egun,
zuhaitz-lapur eta
bizkarroitzat daukagu**

ENEKO AGIRRE (BIOLOGOA)

Asterix eta Obelixen komikietan, Panoramix druidak berebiziko garrantzia zuen galiar herriaren ongizatean. Bere edabe magikoaren ezinbesteko osagaia haritzen gainean hazten zen *errege koroa* itxurako landarea zen, mihura (*Viscum album*) hain zuzen. Galiarrek, negu nahiz udarako solstizioetan, ilargiaren lehen edo seigarren egunean biltzen zuten. Druidak —basoko erregearen (haritzen) besoetan lurra ukitu gabe bizi zitezkeen izakiak— jainkoen fruitutzat zeukaten. Ondorioz, urrezko igitatz moztu behar zen, eta lurra ukitu baino lehen izara zuri batez bildu, botere magikoak gal ez zitzaizkion. Honela, neguko solstizioan (urtarril hasieran), udaberriaren etorrera ziurtatzeko, mihura bilketan oinarritutako festa bat antolatzen zuten.

Baina galiarrek, frantsesten joan ziren heinean, ohitura zaharrak galdu zituzten, eta, pixkanaka-pixkanaka, neguko solstizioaren festa desagertu egin zen. Honen ordez, lege zentzugabeak plazaratzen hasi ziren: 1888ko eta 1893ko Frantziako lege baten arabera, baratzetako jabeak derrigortuak zeuden mihura inguruetako zuhaitzen adarretatik moztera, multa gogorak jaso nahi ez bazituzten. Hainbat kasutan erremedioa gaitza baino okerragoa suertatzen zen, mozketak eragindako zauriak benetako bizkarroi edo onddoei bidea irekitzen baitzioten, zuhaitza heriotzara bideratuz. Zeren, ikusiko dugun bezala, gure gaurko protagonistaren portaera ez da *armada* txikitzaile baten parekoa, eskularru zuriko lapur batena baizik.

Sasibizkarroitzat har daitekeen landarea

Hain sentimen kontrajarriak sortarazi dituen landare hau *sasibizkarroi* bat da. Zuhaitzen adarretan sustraitzak lapur senaren berri ematen digu. Hostoen kolore berdea, berriz, fotosintesia egiten duen adierazle da. Honela, berak ekoizten ditu beharrezkoak dituen elikagai

guziak. Beraz, landare honek zuhaitzari ura nahiz gatz mineralak lapurtu arren, gero berak landu edo prestatzen ditu. Hau da, zuhaitzak lurretik adarretara ponpatutako lehengaiez baliatzen da (izerdi landugabea), ezin baititu berak zuzenean lurretik hartu; baina ez du inoiz zuhaitzak prestatutako (izerdi landua) janaria lapurtzen. Ondorioz, zuhaitzei eragiten dien kaltea normalean ez da esanguratsua izaten. Hau horrela izanik ere, zenbait kasutan ale dezente zuhaitz berean ezartzean, berau estaltzera irits daitezke, eta zuhaitza hiltzera. Dena dela, fenomeno hau nahiko arraroa da, zuhaitza hiltzeak mihura desagertzea baitakar. Hori saihesteko, sasibizkarroien estrategia eman dio eboluzioak landare honi.

Sexua eta hazien banaketa

Mihura ar nahiz emeak bananduak bizi dira, bakoitza esfera itxurako landare batean. Honela, maiatzaren arraren polena emera iristean, azken honek kolore zuriko fruitu edo baia distiratsuak ematen ditu (6-10 mm-takoak). Garapena abuztua eta azaroa bitartean gertatzen da, eta fruituaren mamia ehun likatsu edo itsasakor batez inguratua egoten da. Berauen barnean, hegaztiak irentsi eta gorotzen bidez sakabana dezaten zain, belaunaldi berriaren hasikina edo hazia gordetzen da. Baina fruitu hau birigarroak (*Turdus philomelos*)

edo zozoak (*Turdus merula*) irensten badu, belaunaldi berriak etorkizun iluna dauka, miraria baita gorotza adar baten gainean erortzea (estatistiken arabera, horrela irentsitako 15.000 hazitatik bakarrik lortzen du helburua). Arazoa saihesteko, mihurak Txinbo Kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*) kontratatatu du. Hegazti honek oso gogoko ditu mihuraren fruituak, baina bere kolkoaren tamaina txikiaren ondorioz, ezin ditu haziak irentsi. Honela, fruituaren mamia

inguruko adarren batean jan ondoren, hazia azalean itsatsia geratzen da, lehen aipaturako ehun likatsuen eraginez.

Eta haxe da noski gure gaurko gonbidatuak bilatzen duena. Hazi hauek, astiro-astiro, xiringa itxurako *sustraiak* (*haustorioak*) sortzen dituzte; zuhaitzaren azala zeharkatzen dute, eta ura nahiz gatz mineralak igotzeko hobi batera iristen dira. Ostalariari lapurtuz lehengaien hornidura ziurtatu ondoren, berau landu eta jaki bihurtzen du fotosintesiaren bidez. Bizitzaren lehen urrats hauetan, hazkuntza nahiko geldoa izaten da (lau urte behar ditu heldu itxura hartzeko). 35 urte bizi daitezke, eta epe honetan, landare eme bakoitzak 30.000 fruitu ekoizten ditu. Berauetatik 2 edo 3 soilik iristen dira landare heldu izatera, eta honek belaunaldi ordezkapena orekatzen du, eta gainpopulaztea eragotzi.

Kokapen bereziak eta etorkizuna

Indar teluriko nabarmeneko eremu edo gunek oso gogoko ditu. Honela, eremu hauen on-

EZAUGARRIAK

Euskal Herriko mihura motak

Mihura (*Viscum album*) Euskal Herri osoan topa daiteke, Nafarroa hegoaldean izan ezik. Erabiltzen duen ostalariaren arabera, azpisailkapen bat osatzen da:

- *Viscum album abietis*: Izeietan (*Abies alba*) ageri dena.
- *Viscum album austriacum* edo *V.a. cruciatum*: Pinuetan (*Pinus sp*) ikusten dena.
- *Viscum album album*: Hostoa erorkorretan azaltzen dena.

Mihuraren zenbait berezitasun

- Landare dioikoa (ale ar nahiz emeak daude) izan arren, zenbait kasutan bola berean lore ar eta emeak ageri dira. Hauek ez dira hermafroditismo kasuak, sasibizkarroien estrategia muturrera eramatea baizik (mihura beraren gainean, ale berri bat garatzea).
- Gizakiarentzat toxikoa da.
- Fruituek duten ehun likatsu honen ondorioz lika egiteko erabili izan da.
- Euskal Herrian hainbat izen hartzen ditu eskualdearen arabera: *migura*, *bigura*, *biguri*, *pigura*, *midura*, *miru*, *miura*, *mihura*, *mihula*, *puhura*, *puhure*, *ultzuri*, *auki*, *usta*, *biska*, *lizka*.


Itxuraz edozein zuhaitzen adarretan topa daitekeen arren, hosto erorkorretan, ez da pagoaren (*Fagus sylvatica*) gainean hazitako alerik ezagutzen. Zumarretan (*Ulmus sp*) eta haritzetan (*Quercus sp*) ikustea oso zaila da. Urritzak (*Corilus avellana*), urkiak (*Betula sp*), gereziandoak (*Prunus avium*), haltzak (*Alnus glutinosa*), gaztainondoak (*Castanea sativa*) eta udareondoak ere (*Pyrus communis*) ez ditu oso gogoko. Sagarrondo (*Malus sylvestris*), sasiakazi (*Robinia pseudoacacia*), ezki (*Tilia sp*), elorri (*Crataegus sp*) nahiz zurzurietan (*Populus alba*) berriz oso arrunta da.

dorioz, makurdura, okermendu edo minbiziz jositako zuhaitzak agertzen diren lekuetan, oso ugaria izaten da. Honen adibidea Aralarko Parke Naturalean topa genezake, trikuharri nahiz tumuluak ugariak diren tokietan, landare hau ugaria izaten baita.

Baina, gaur egun, zuhaitzen ekoizpena nabarmen jaitsarazten duen aitzakiarekin, gupidarik gabe mozten da. Jainkoen fruitu izatetik, Luziferren kreazioa izatera pasatu da. Aurreko lerroek lapur txiki honen izen txarra garbitzeko balioko duten itxaropenarekin agurtzen zaitzuten.



Mihura landarea. Miretsi egiten zuten garai batean.



Zuhaitzetan sustraitzen da mihura baina ez die kalte handirik egiten.